

Gaur arratsaldean 'Legazpi 1936' liburua aurkeztuko dute kultur etxean; 36ko gerrako eta gerra osteko legazpiar 'galtzailéen' bizipenak jasozen ditu.

1936ko tiro hotsen oihartzuna

Alex Areizaga Legazpi

Legazpi 1936ko irailaren 19an okupatu zuten Francoren aldeko tropa nazionalak Ordurako, 2.400 biztanleko herri txikian 300ndik gora bizilagun falta ziren garai beltz eta luze baten hasieraren iragarle gisa.

Itñaki lurrebaso soziologo legazpiarak liburu baten forma eman die kontakizun horiei. *Legazpi 1936* izenburupean aurkeztuko du gaur, 19:00etan kultur etxean 36ko gerrarekin lotutako Legazpiko kontakizunen, gortaren eta dokumentuen narrazio idatzia. Lan honetan beste hainbat herritarrek laguntza izan du lurrebasok.

Gerra aurreko Legazpi «herri txikia» zen, 2.400 biztanlekoa. Oraindik ere gizarite tradizionalaren ezaugarri asko zituen. «Base-riak pisu handia zuen, industria Patrizioarena batez ere, haziz bazihoan ere», dio lurrebasok. Fabriketarako immigrazioa hasia zen jada, Hego Euskal herriatik gehienbat Herri euskalduna eta oso abertzalea zen –1933ko huteskundean 3 herritarretik 2k EAri eman zion botua–. 36ko gerra uztailearen 18an lehertu zen.

Francoren tropak altxatu zirenean Euskal Herriari Mola jenerala gidatu zuen altxamendua. Nafarroan Legazpira gerra hasi eta bi hilabetez iraun zuen. Denbora horretan errepublikarren esku egon zen herria. «Erantzuna batakoea izan zen, sindikatuek eta ezkerreko alderdiek greba orokorra deitu zuten, eta Legazpin erantzun zabalak izan zuten» azaldu du lurrebasok. Gerra piztu eta bi egunera «oinarizko defentsa bat» ere sortu zuten herriari; inguruko mendietan lubakiak egiten hasiak ziren. Udalak herritarrei arma guztiak entregatzeko exijitu zien, ibilgailuak jaso zituen eta 85 urtetik beherako gizonen zerrenda bat osatu zuten. Nazionalen alde egin zezaketen batakoea ere atxilotu zituzten.

Frontea Legazpin

Altxamendua eman zenean Nafarroa azkar erori zen nazionalen eskuetan. Gipuzkoara erasoar jo eta Zegamara 6 egunetan iritsi ziren. Frontea hori mantendu zen zati batean Legazpirekin mugan. «Bi hilabete horietan faxistak herriaren atean zeuden. Errefuxiatu mordo bat iristen hasi zen okupatutako herrietatik. Bi aldeak Irun eta Donostia zituzten bu-



Liburuan argitaratuko duten gudiari talde baten argazki bat. LEGAZPI 1936

ruan, eta gune estrategiko horien bila, bi hilabetez Legazpiko fronte geldirik egon zen, tiroketa eta atxilotuta bat edo besterekin». Defentsak zutik zirauen, baina errepublikarren baliabideak ezin ziren nazionalenekin alderatu.

Gerraren ondorioz 59 lagun hil ziren Legazpin; herritik 300ek egin zuten alde

«Okupazioa ematean, herritarrik harrituta gelditu ziren nazionalen uniforme eta armekin» dio soziologo legazpiarrek.

Donostia eta Irun hartuta, faxistak Bilborantz abiatu ziren. «Erasoaldia bat batean iritsi zen Gipuzkoako fronte leirosoan Legazpin irailaren 18an hasi ziren borroka, eta hurrengo egunean konkistatu zuten herri guinea 18an eman zen lehen hildakoa Legazpin. Atagoiti inguruan».

Tiroketa gogorrenak inguru horretan izan ziren, 18 eta 19 goizaldean eta egun osoan zehar. Az-

tiri eta Ormakio bitarteko mendietan egon zen fronte lerroa. Herri guinea 10:00etarako konkistatu zuten, Arrasateetik behera erresistentziarik topatu ez zuten erreketek. Etxe Alai inguruan tiroketa bat egon zen, nazionalak bertan milizianoak zeudela uste baitzuten, baina bizilagunek izara zuriak ateratzean faxistek tiro egiteari utzi zioten.

Bi talde nazionalak jo zuten Legazpirantz. Batetik, Gabiria, Azuria eta Arrasateatik iritsi ziren; bigarren talde bat Seguratik etorri zen. Aztiri igarota bitan banatu eta talde batek Brinkola-Telleriar tera eta beste batek Ormakio aldera jotzeko. Brinkola eta Telleriar te hartzea gehiago kostatu omen zitzairen faxistek, baina 19:00ak alderako bereganatu zuten auzoa. Nazionalak etortzerako, milizianoak Korosti, Udana eta Urtaza aldera joanda zeuden.

Hortik aurrera milizianoek ekintzaren bat edo beste egin zuten Legazpin. Okupatu eta hurrengo egunean, milizianoak betetako kamioi bat herrirantz abiatu

zen, Oñati aldetik Erreketeak azaldu, ordea, eta ihesean joan behar izan zuten. Horietako hiru atxilotu eta fusilatu egin zituzten, tartean legazpiar bat. Patrizioaren lantokia elikatzen zuen Bengoleako turbina elektrikoera sabotatu nahi izan zuten gudariak, baina asmoak huts egin zuten.

Legazpi har tu ondoren, gerrak beste 9 hilabetez jarraitu zuen Euskal Herrian. Bizkaia erori arte. Gerra amaيتuta, hamar legazpiarretatik bat preso edo lan batailoietan zegoen, ihesean ez bazen 300 bizilagun falta ziren.

«Hura gertatu egin zen, eta ez da ahaztu behar. Eta ez hori bakarrik; kontatu egin behar da, berriro gerta ez dadin» azaldu du Ramiro Pinillak. Antologia Poetica Vascan *Galtzailéen* historia ahaztu egin nahi izan bada ere, liburu honetako Korosti, Udana eta Urtaza alderako joanda zeuden. Horatik aurrera milizianoek ekintzaren bat edo beste egin zuten Legazpin. Okupatu eta hurrengo egunean, milizianoak betetako kamioi bat herrirantz abiatu

Itñaki lurrebaso • Soziologoa

«Liburu honek ezkutuan eramanduen min hori arintzen lagun dezake»

A. Areizaga Legazpi

Itñaki lurrebaso (Legazpi, 1967) soziologoa da. *Legazpi 1936* liburuari forma eman dio, legazpiar lan talde baten 3 urteko ikerketa lanak 300 orrialdetara laburtuz. Zerbatetik uste baino gehiago harritu aizaitu?

Gerra Legazpin oso gogorra izan zela banekien, baina ez nuen hainbesteko izatea espero. Pro-

porzio horiek egungo biztanle kopurura ekarrita ikeragarriak dira. Drama kolektibo izugarria izan zen. Gerra aurreko Legazpi dinamiko eta ameslari hori, belaunaldi ezkerriarrek eta abertzaleak, guztia bukatu zen. Lankideak hilda proiektu kideak hilda gorria zarelako luze ordaindu behar, lana aurkitzeko zailtasunak gosea garai gogorrek eta oso zailak izan ziren.

Nolatan hasizinen lan hau egiten?

Udalak Euskal Memoria fundazioari eskatu zion lan hau egiteko, eta fundazioak niri proposatu zidan. Hala ere, legazpiar talde bat 3 urte inguruz dokumentazioa bildu eta gerran hildako senideak dituzten herritarrekin elkarriketak egiten aritu da. Ni etortzerako informazio asko zegoen, eta gehienbat antolatu eta forma eman diot.

Zaila al da 36ko gerra ikertzea?

Baditu zailtasunak. Urte asko pasa dira. Badira euren senitatekoa gerran hil zela ez zekitenak, baina baita mina oraindik ere oso barruan dutenak. Askok ezin izan zieten euren hildako senitateko ei semeari edota anaiari negarrik egin, eta jende askok min hori barruan du.

Lan honek pisu hori arintzen lagun du al dezake?

Nik uste lagun dezakeela. Hori nahiko genuke. Ezkutuan eramanda, eta sufrimendu hori agerian jarri behar da. Gerra galdu zutenen ohorea eta izen ona ere argi utzi nahi ditugu. Ez ziren gaizkileak. Gaiari buruz pixkat gehiago hitz egiten ere lagun dezake agian.

Nolako esperientzia izan da lan hau egitea?

Oso gustura aritu naiz, baina gogorra ere izan da. Gure aitona-amonak pasatakoak... eta beldurra ere izugarria izan behar zen pasa behar izan zuten beldurra, une ikeragarriak bizi behar izan zituzten. Bestela, Legazpira hurbiltzeko aukera bat izan da niretzako. Taldean egin dugulan eta pozik aritu naiz, egia esan.

Gerrako biktimak eta senideak omenduko dituzte 75. urtemugan

36ko gerran faxisten eskuetan hildako legazpiarrek 59 dira; alde egindakoak 300 eta zigortuak 250

Alex Areizaga Legazpi

Legazpiko Udalak 36ko gerran hildako herritarriak omenduko ditu. Legazpin 59 pertsona hil ziren faxisten aurkako edo hauek behartutako borrokan Memoria hori berreskuratzeko asmoz hainbat ekintza programatu dituzte. Datozen egunetan, liburu bat aurkeztuko dute eta Legazpin frontea egon zen lekuak ikusteko ibilaldi bat ere antolatu dute.


Sotero Plazaola alkateak eta Mikel Altzelai kultur zinegotziak herenegun aurkeztu zuten egitaraua. Bertan azaldu zuten, aurrean 75 urte betetzen dira 36ko gerrak eztaba egin eta Francoren aldeko tropek Goierrri hartu zutenetik Udala ordezkariei hitzetan, gertaera hark «sakon aldatu

zuen» Legazpiren errealitatea. «Honezkerok gure artean gutxi izango dira urte haiek zuzenean bizi izan zituztenak, baina seguru gaude ez dutela gure herriaren etorkizuna su eta gar markatu zuten esperientzia ikaragarri hura ahaztu».

Datuak ere eman zituzten: 59 izan ziren hildako legazpiarrek; 300 bizilagunek egin zuten herriatik alde; 250 espetxeratuak, lan batailoietara zigortuak edo erbesteratuak izan ziren. «eta kontuan izan gerra hasi zenean Legazpik ez zituela 2.500 biztanle baino gehiago».

«Isilarazitako» memoria

Gertaera haiek gogoratzearen garrantzia ere azpimarratu zuten agerraldian «Faxisten erasoaren eta garaiaren ondoren, erreproso sistema frankistak isilarazi egin zuen gertatu zen guztia eta drama hura ezkatuta geratzea bermatu zuen. Urte askoan, gerra gaidu zutenek, gaitzeaz gain ezin izan zituzten euren hildako seme-alabak anai-arrebak gurasaok



Sotero Plazaola alkatea eta Mikel Altzelai kultura zinegotzia ekitaldien aurkezpenean. ALEX AREIZAGA

senitar tekoak eta lagunak gogoratu eta omendu» 75 urte bete diren honetan, udalak gertatu zeneren memoria berreskuratzeko lanak hasi ditu, eta «gerraren astakeria jasan zuten Legazpiko gizonen eta emakumeen omenaldi beroa» eskaini nahi die. Hala, memoria historikoa berreskuratzeko lana hilabete honetako ekintzetara mugatu ordez, «datozen urteetan sei lotasunez zabaldu behar reko lan ildoak» dela ere adierazi zuten.

Hala, udalak «legezkotasun demokratikoa adoretz defendatu zu-

ten Legazpiko semeen eta alaben izen ona eta ohorea» aldarrikatu nahi ditu «Harrotasunez eta esker onez gogor atzen dugu, iritzi aberzale sakonek eta mundu justuaren aldeko ideiek bultzatuta, faxismoa geldiarazteko ausardiaz borrokatu zuten belanaldi adoretzua eskuzabala eta ameslaria».

Honekin batera, udal ordezkariak euren «maitasuna» azaldu zieten «urte luze hauetan euren oinazea isilean eraman behar izan duten biktima legazpiarrei eta haien senideei».

↓ Legazpi 1936

EKINTZEN EGITARAUA

- **Martxoak 15.** Legazpi 1936 liburuaren aurkezpena kultur etxean, 19:00etan.
- **Martxoak 18.** Ez-ohiko udalbatzarra, omenaldia eta plaka jartzea 12:00etan udaletxean. 19:00etan 'Gerra Zibila Euskal Herrian' hitzaldia kultur etxean.
- **Martxoak 20.** Ibilaldia Ormaiztegui frontera 09:00etan, Brinkolako geltokian.

Bost jokalarik kanporaketarako sailkatuta daude Eire-Bankoan


Bi jardunaldi falta dira ligaxka amaitzeko; martxoaren 20tik aurrera kanporaketak hasiko dituzte

A. Areizaga Urebu

Urretxuko Eire Bankoa xake txapelketa zortzigarren jardunaldian da jada. Bi jardunaldiren faltan, sailkapenak definituz doaz, final zortzirenetara begira.

Egoitz Iruure zestoarra, Jesus Mari Rodriguez zaldibiarra, Jokin Fernandez beasaindarra, Jon Regillaga elorriarra eta Carlos Erostarbe legazpiarra dira final zortzirenetan egongo diren lehen bostak. Sailkapen buru dira, nor bere taldean gainontzekoek, bi partida dituzte oraindik txartelak loritzeko. Mai txoaren 20rako ligaxkakako partida guztiak jokatu izan behar dituzte guztiak.

Eire-Bankoa txapelketan helduak eta gazteak batu ohi dira ur-



Jokin Fernandez eta Andoni Cotta. TXEMA IRIBERRI

tero xakearen bueltan. Aurten ordea, gazteak protagonismo berezia hartzen ari dira. Unai Elias 11 urteko gaztekoa da arretagehien bereganatu duena, baina Eliasez gain, Erik Rodriguez, Jokin Fernandez eta Andoni Cotta gazteak ere txapelketa ona egiten ari dira Rodriguezek lehen urtea du Urretxuko txapelketan eta bi garapen lortu ditu dagoeneko.

Txapelketa hau inguratzen duten ekintzekin amaitzeko, datorren asten, hilaren 25ean, film emanaldi berezia egingo du Buktak 21 Zine Klubak. *Los jugadores de ajedrez* filma proiektatuko dute Satyajit Ray zuzendariak 1977. urtean Indian grabatutakoa. Emanaldi Labeaga aretoan egingo dute eta sarrera doakoa izango da.


→ Laburrak

Herri programarako bigarren bilera gaur

LEGAZPI | Legazpiko ezker abertzaleak herri programa lantzeko bigarren bilera egingo du. Pasa den astean egin zuten aurrenekoa, eta bigarrena gaur egingo dute. 19:00etan kultur etxean. Euskara, kultura, kirolak eta gazteria puntuak landuko dituzte, eta ezkertiar eta abertzale guztiak bertara joateko deia egin diete.

Zine klubak bi emanaldi egingo ditu asteburuan

LEGAZPI | Legazpi Zine Klubak bi emanaldi egingo ditu asteburu honetan. Lehen bihar izango da Ursula Antoniak zuzendari poloniarraren *Nothing Personal* filma proiektatuko dute, 22:15ean Latxartegi aretoan. Filmak neska gazte holar baten eta gizon heldu irlandar baten arteko istorioa kontatzen du. Igandean, hilak 13, *Mistardes con Margarita* filma proiektatuko dute Jean Becker zuzendariarena. 19:30ean hasiko dute emanaldi hori Latxartegin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GOIERRIKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 23a. VIII. Urtea. 1754. zenbakia: goierri.hitza.info

Goierriko ia haur eskola guztietan bat egin dute hezitzaileen lanuztearekin

LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, hamalau haur eskoletatik hamahirutan lanuzteak egin eta herrialde mailako mobilizazioetan parte hartu dute hezitzaileek

Deitzaileek «balorazio positiboa» egin dute eta orain, «administrazioari dagokio urratsak ematea»; egoera konpondu artean, «borrokan» jarraituko dutela diote



Igandean herrehun bat lagunek parte hartu zuten Ormakioko frontea egon zen tokira egindako mendi irteeran. GOTZON ARANBURU

Pausoz pauso memoria berrituz

Legazpin 36ko gerran hil ziren herritarak eta haien senideak omentzeko ekitaldiak bukatu dituzte, igandean Ormakiara, frontea egon zen tokira, egindako mendi irteerarekin (irudian) 67

Goierriko udal gehieneko zorra hazi egin da azken urtean, %23 denera

Goierriko 22 udaletatik 19k zorpetuta hasi dute urtea; erakunde horien artean, 26,2 milioi euroko zorra dute, inbertsioetarako kreditu moduan 68



Ander Quina
Pilotaria

«Partidan sartzea da garrantzitsua, horretan etxeko berotasunak laguntzen du»

Gofiñen Omenezko XX Txapelketaren finala jokatu du gaur zumarragar gazteak, Mendinuetairen kontra

Elkarizketa 68

goierri.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago ezagutu gure webgune berrisk

beasain.hitza.info • ordizia.hitza.info • goierrikiatidea.hitza.info • goierrimendealdeak.hitza.info
legazpi.hitza.info • www.otamotz.com




HYUNDAI

ZUBI TAILERRAK

Hyundai-en Goierriko banatzaile ofiziala

Salbustore Auzoa / BEASAIN / 945 83 93 05

Irudia o Legazpi**JENDETZA BILDU DA 'LEGAZPI 1936' LIBURUAREN AURKEZPENEAN**

Herenegun gauean Legazpi 1936 liburuaren aurkezpena Legazpiko kultur etxean. Itxaki lurrebaso soziologoak aurkeztu zuen gaia eta aretoa txiki gelditu zen bertaratu zen jendetza ikusita. Idazleak hainbat herritarren laguntza izan du liburu honen osaketan, tartean Jose Luis Ugarterena eta Aitor Ibañez de Garatxanarena. Guztiak ere aurkezpenaren izan ziren. Lurrebasoak ordubete baino gehiago eman zuen gaia aurkez-

ten, eta amaleran, lana egiterakoan jarri zituzten bi helburuak gogoratu zituen: «garai ilun haei argi pixka bat ekartzea» eta «hildako 59 legazpiar horien, gerra aurreko herriko abertzaleen eta ezkeriarren, eta gudarien eta milizianoen izen ona eta ohorea berreskuratzea». Liburuaren aurkezpena eta udaletxean jarri dute oraingoz salgai, eta apiril hasieran liburutendetan ere igorriko dute. **ALEX AREIZAGA**

Laburrak**Jaki manipulazailerikastaroen eskainiko dute**

URRETXU Elkolab S Coop taldeak antolatuta, jaki manipulazailerikastaroen egindako dute Urretxun. Urola Garaiaiko ostalariei eta merkatariari zuzenduta dago eta datorren martxoaren 28an egingo dute, 16:30etik 20:30era Urretxuko kultur etxean. Izena emateko interesa dutenek 943 53 33 03 telefonora hots egin beharko dute.

Udalekueetan izena emateko epea zabalik da

LEGAZPI Legazpiko Udaleko gazteria sailak 7 eta 13 urte bitartekoentzako udalekuen berri eman du Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutakoak dira eta izena eman nahi dutenek martxoaren 23ra arte dute horretarako epea. Plaza guztiak apirilaren 5ean jendaurrean eta notarioarekin egingo den zozketan banatuko dira. Eskararak Legazpiko Gazte Informazio Bulegoan edo saretik (gipuzkoagazteria.net/udalekuak) egin daitezke.

Jaietan dantza egiteko ikastaroen martxan dago

LEGAZPI Maiatzeko Santikutz jaietara begira, Sustraiak dantza taldeak Larrain eta Kapela dantzen ikastaroen abiarazi du Zapaturu egiten dituzte entseguak, 17:00etan dantza taldearen egoitzan. Herritar guztiei irekita daude.

'Zazpi orduak' obra landuko du irakurle taldeak 23an

Miren Agur Meabe liburua idazlea Urretxuko eta Zumaragako irakurleen tertulian izango da.

Alex Areizaga Urretxu

Urretxuko eta Zumaragako euskarazko irakurle taldeak ikasturte honetako seigarren bilkura ospatuko du datorren asteazkenean, hilak 23. Ohiko moduan, Urretxuko liburutegian egingo dute bilkura, 19:00etan.

Topaketa honetan Miren Agur Meabe idazlearen *Zazpi orduak* liburuaren azter tuko dute eta oraingoan ere idazlea bertan izango da. Tertulianako sarrera irekia da baina antolatzaileek liburuaren irakurritza joatea gomendatzen dute 15 lagun inguru bildu ohi dira hi-



Euskarazko Irakurle Taldea 23an bilduko da berriro Urretxun. **HITZA**

lerro eta Goika Azkarate urretxuarrek gidatu ohi dituzte saioak.

Sari ugari idazleak

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen 1962an, nahiz eta egun Bilbon bizi den. Umetan idazlanekiko zuen afizioa tiraka ipuinak eta olerkiak idazten hasi zen. Irakasle moduan egiten du lan eta Giltza

argitaletxeko zuzendaria ere bada.

Hainbat literatur sari ere jaso ditu Meabek, hala nola 1997ko Imajina ezazu Euskadi saria *Ohar orokorrak* poesia liburuagatik, 2001ean Kritika saria *Azalarren Kodea* olerki lanagatik eta 2002ko Euskadi saria *Itsastabarrereko etxea* lanarengatik.

Korrika girotzen hasteko kantu jira eta bertso bazkaria antolatu dituzte

Kantu-jira apirilaren 8an egingo dute eta bazkaria aldiz, hurrengo egunean, Estiballes eta Zubeldia etorriko dira.

A. Areizaga Legazpi

Korrika girotzeko ekintzak prestatzen hasi dira Jada Goierri. Horren erakusle, Legazpin iragarri dituzten kantu-jira eta bertso bazkaria dira.

Kantu-jira Zingizango elkar teak eta Doinua musika eskolak prestatu dute, apirilaren 8rako. Jesus Castillejok zuzenduko du aurten taldea. Bertso bazkaria apirilaren 9an egingo dute gazte txean. Arkaitz Estiballesek eta Iker Zubeldiak kantatuko dute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera ditu

Antzerki Garaia "100 m"

Ursabe Antzokia
Martxoak 18 / 20:00tan eta 22:30etan

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-16 00 56
harpidedun kodea eskura duzula
Jazotako del gortien bertsu zuzendua egingo dute.
Sarduntzen izenak Martxoaren 18ko egunetan.

TRUKER hitza

Igandean Ormakiora egin zuten ibilaldiak itxi du Legazpin 36ko gerrako biktimak omentze aldera antolatutako ekintzen egitaraua; 75 urteko isiltasunari ahotsa, aurpegiak, eta izen-abizenak jarri dizkiote.

Isiltasunari ahotsa emanez

Alex Areizaga Legazpi

Herri min ez hiltzen direnak hilezko bituritzen dira. Hala dio pasa den astetik Legazpiko udaletxearen atzealdean ikus daitekeen oroimenaren plakak. 36ko gerraren garaian EAJ-ren Legazpiko buru izan zen Estanislao Gisasolaren hitzak dira; ondo laburbiltzen dute azken egunetan Legazpin burutu dituzten ekintzen zentzua.

Pasa den igandean Ormakiora egin zuten ibilaldiak itxi du 36ko gerran faxisten aurkako borrokan hil ziren legazpiarrek eta haien senideak omentzeko ekintzen egitaraua. Ez dira bukatu ordea ikerketak, argitaratu berri duten libururak hizketarako gai asko emango baitu oraindik Legazpiko sukaldeetan. Gerraren biktimak omentu dituzte. Dramatismoetan erori gabe, eta ikasgaia burdinezko plaka batean litzatu dute udaletxean.

Ormakio inguruan eman zieten pasa den igandean ekintzei amaiera 1936 urtean leku hartan prestatu zuten milizianoek Legazpin lehen defentsa eta Zegamatik zetozen nazionalekin ere hain izan zituzten lehen borrokek. Pasa den igandean berrehun bat legazpiar bildu ziren, txalapartaren, berriaren eta txistu hotsean laguntzaz, orduan getatutakoak ezagutzeko asmoz.

Aitor Ibañez de Garatxana, Jose Luis Ugar terekin eta Inaki Iurrebasoren koordinazioarekin, *Legazpi 1936* ekimenaren lanean aritu da Berak azaldu zuenez «trintxerak jada ez dira existitzen, ez dira kontserbatu Faxistak Zegaman zeuden, eta defentsa lerroa Ormakiotik Ormaiztegiara luzatzen zen Pinudian ibiltzea, lubakien arrastoiak soma daiteke lurrean dauden franja modura». Pinuek eta mendipistek gerra eskenatokia itxuraz aldatu dute Larrosain inguruan ere lubakien aztarnarik soma omen daiteke.

Defentsa lerro horren helburua ahal zen denbora gehienez eustea izan zen «Armekin eta ondo antolatuta astebete iraun zezaketen baina 3 egunetan erori ziren. Hurrengo defentsa lerroa Korostioa zen, eta horrek egun erdiz iraun zuen» jakinarazi zuten. Aziritatik hasita, milizianoen posizio guztia har tuz joan ziren nazionalak «Ez zegoen aurre egiteko armarik eta haiek iristean frontea Elgetan egonkor tu zen».

Tomas Zubizarreta urretxuarren agindupean gauzatu zen



Berrehun lagun inguru joan ziren igandean Ormakio ingurura, fronteko lerroa egon zen lekura. GOTZON ARANBURU

herriaren ebaquazioa ere nabarmendu zuten igandeko ibilaldian Defentsa lerro osoaren kargu egin zen Zubizarreta, eta egun haietan «defentsei ondo eutsi zien». Hala, herria ebaquatu egin ahal izan zuten.

Jose Luis Ugar tek gehitu zuenez, «trintxera nagusiak Ormakion egon ziren, egun pinudia da goen lekuan. Tropak zaintzen inguru guztian ibili zirela ere esaten dute». Hala, ezagutarazi zuenez, Arranoaitzen adibidez, ez zen lubakirik jarri, baina bai ordea Larrosainen edota Haizalekuko hegaletariko batean.

Askori oroitzapenek oraindik ere min eman arren, igandeko ibilaldian legazpiarrek jai giroan gogoratu zituzten 1936an eroritakoak Horren erakusle da Bittor Agirre bertolariak kantatutako bertsoa: *hemen etsaitu ziranak asko / lehenago ziranak lagun / ekaitze beltza izandu zala / iruditant da ezagun / hainbat urteetan tristora sartu / ta bizitzen ginen ilun / gaur ez daukagu frontierik eta / alai pasatu dezagun.*

Aste osoko ekitaldiak

Pasa den asteartean aurkeztu zuten *Legazpi 1936* liburua, Inaki Iurrebasok, legazpiar lan talde baten laguntzaz, koordinatu duena. Hiru urte baino gehiagoko lana izan da, 75 urtean ixildutakoak jasotzen dituen. Izenak eta abizenak jarri dizkiete oroitzapenei, beldunaldi berriek ezagutu ditzaizen.

Ostiralean berriz, ez ohiko udalbatzara eta omenaldia egin



Rodrigo Gartzia eta Adelaida Prieto plakarekin, ostiraleko ekitaldian. A.A.



Herriko norbanako eta elkarte ugari hartu dute parte ekitaldian. A.A.

zituzten udaletxean. Plaka orri-garria ere jarri zuten, eta gerrako biktimen senitar tekoei ere hitza eman zieten. 75 urte geroago. Se-

nideen izenean Adelaida Prietok eta Rodrigo Gartziak hitz egin zuten. Azken honek «Injustiziaz betetako tunel beltz eta luze bat» be-

zala definitu zituen azken 75 urteak «Denboraluzea da baina ez da berandu egiten. Berandu bada ere, oroimen hori berreskuratzeko unea» iritsi dela esanez bukatu zuen Gartzia.

Gerran hil zioten aitonari erreferentzia eginez, «amona hemen harro» egongo zela esan zuen. «Sekula santan ez gara lotsatu baina urte luzeetan isildu egin behar izan dugu. Ez ninduten gorrotoan hazi, baina hainbat gauza ezin dira ahaztu. Espero dut, gaurko egunez, tunel beltz luze horri bukaera jarriko diogula plaka honekin, eta plaka honetan, gaur sortu berri den argi horren dizaira isladatuko dela».

Xotero Plazaola alkateak ere hartu zuen hitza ekitaldian: «Oso garrantzitsua da askatasunaren alde jardun zuten pertsona guztien aldarria egitea, haiek izan zirelako baikara gu. Etorriko diren belaunaldi berriei askatasun testigantza hauek zori dizkiegu». Azkenik, bizilagunei ere eskaera bat luzatu zien alkateak: «erakutsi zuten duintasunak guztiok argituko gaituen itsasargia izaten jarra dezala».

Legazpiko ekitaldi hauekin, 75 urte isilik egon direnei ahotsa eman diete; hildakoen izenak eta abizenak gogoratu dituzte eta faxismoaren aurka borrokatu zuten aurpegiak jarri dizkiete. Historia irakasgai bat izan da, orolmen kolektiboa lantzeko ariketa bat. Herritarrek goxotasunez babestu dutena. Nondik geroztan ezagutzea inoiz ez baitago soberran nora goazen jakiteko.

Alegazioen erantzunei zégokien gai ordeneko puntuan aspaldiko eztabaidak berreskuratut dituzte politikariek

Alex Areizaga Urretxu

Urretxuko Arau Subsidiarioak onartze bideko azken pausuetan dira Herenegun Udabatzarrak alegazioen erantzunak eta azken txostena onartu zituen eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira igorriko dute orain, haik onar dezan.

Udabatzarrak, aspaldiko eztabaidak berpizteaz gain, tripu zaharrak ateratzeko ere balio izan zuen Kainpaina politiko usaina ere hartu zuen momentua. Luze jo zuen, baina azken bozketa betikoa izan zen, aldeko zazpi botu (Udal gobernuko taldea, atxikitu gabeko zinegotziak eta EB-Berdeak-Aralar taldeko zinegotzia) eta kontrako bost (E.A.J, H.I eta PSE-EE alderdietako zinegotziak).

Hamar alegazioen berri eman zuten udabatzarreen eta guttien erantzunak irakurri zituzten, Bakarra onartu zuten, eta partzialki izan zen. Adif enpresak aurkeztutakoa zen hori. Alderdi bakoitzak iritzia agertzeko txanda bakarra izan zuen alegazioen puntuan. Hala, orain arte ezagunak ziren diskurtsoak errepikatu zituzten guztiak.

Hamaikabat alderdiko Jose Angel Lizarragak hiru akats aurkitu zituen arauari, «anbizio handikoak izatea; Arceborren itxiera batekin, desegokiak izan diren prebisiokin amets egitea eta krisi ekonomiko» Era berean, «asmatu den bakarra Ikastolar en leku aldaketa gelditzea» izan dela



Irimo lantokiaren inguruetan Industriak izango duen espazioak eztabaida asko sortu ditu. ALEX AREIZAGA

Urretxuko Hirigintza Arauen zuzenketak Foru Aldundira igorriko dituzte, onartuta

ere adierazi zuen honek, enplegua sortzean indarrak jarri beharria ere nabarmenduz.

EA Iko Itziar Agirre ez zen gustura agertu euren alderdiak aurkeztutako alegazioek jasotako erantzunekin. Dokumentua aurriera ateratzeko «presei» erreferentzia egin zien horrek. Honez gain, etxebizitzien antolaketa eta Irimo lantokiaren ingurua indus-

tria izaerarekin mantendu beharria ere aipatu zuen.

PSE-EE alderdiko Jose Luis Cantero izan zen hurrengoak hitza hartzen. Horrek hirigintza arau horiek «iragana» direla esan zuen, eta euren taldeak alegazioak aurkeztu jarraituko duela. «Hurrengo legealdietan halako astakeriak bete ez daitezke» lan egingo dutela ere esan zuen,

«gehiengo sozialaren iritzia» aintzat hartuz.

EB-Berdeak-Aralar taldearen izenean hitz egin zuen jarraian Jose Andres Martinek. Honek arauak ezarri zuten mugak aipatu zituen, «argi erakusten dute maldan gora ezin daitekela eraiki» esanez. Lizapen eskainiko dituen zerbitzu publikoak aipatu zituen eta Aparizio auzoko bizila-

guniei herrira gerturatzeko ahalbidetzen zalela ere azaldu zuen.

Atxikitu gabeko Jose Mari Lete zinegotziak bere aldetik, «lan egiteko aukera bat» bezala definitu zituen arauak. Kirol azpiegitura «on» batzuei, Lizapen izango dituen apartakaleku rotazionalak edota Matxinpor tatiak Ikastolar a joango den bide alternatiboari ere erreferentzia egin zien honek.

Azkenik, udal gobernuan dagoen taldearen izenean Gorka Garmendia zinegotziak hitz egin zuen. Arauen dokumentua «elkarlanaren fruitua» dela azpimarratu zuen, «gerria mugitzeko gutxieneko prestutasuna agertu duen jendearen elkarlana», eta «alderdi bat izan ezlik, gainontzekoak tren honetan bidaide» izan dituztela ere nabarmendu zuen, egun daudenen eta ez daudenen ideiak «hor jarraitzen» dutela adieraziz. Alegazioen erantzunak onartuta, aldaketak jasotzen zituen txostena ere onartu zuen udabatzak.

Garbiketa kontratua

Hirigintza arauaz gain, bestelako gaiak ere landu zituzten bilkura luzean. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala irakurri zuten eta Udalsarea 21 egitasmoari atxikimendua eman zioten. Honez gain, eraikin eta lokalak garbiketa kontratua aldaketa batzuk ere egin zituzten. Udalak Goiber enpresarekin du hitzartua zerbitzu horietan aldaketak. Pagotea antzokiari, liburu utegiari eta KZ guneari, eta Gazte Bidean lokalari dagozkie. EB-Berdeak-Aralar taldeko zinegotziak kontra bozkatu zuten puntu horretan, azpikontratazioen inguruan euren desadostasuna agertu eta gero. Gainontzeko taldeek oniritzia eman zioten aldaketari.

Irudia Urretxu



MARTXOKO FERIA, OHITURA JARRAITUZ

Atzo Martxoko Feria ospatu zuten Urretxun. Gerriakako Arbola plazan egiten ari diren lanek azoka Avenida berrira eramantarazi zuten, baina horiek aurrera feria urteroko bidetik girotu zen. Hiru idi

pare jarri zituzten bertan erakusgai, eta baita baxerrirako lanabesak ere. Fruitu arbolen zozketa ere egin zuten bertaratuen artean eta azkenik azoka idi probekin amaitu zuten. ALEX AREIZAGA

1936ko gerran faxisten aurka hildakoak omenduko dituzte

Liburu bat aurkeztu, plaka bat jarri, hitzaldi bat eman eta frontea egon zen lekura ibilaldia egingo dituzte Legazpin.

A. Areizaga Legazpi


1936ko Gerra Zibilean «faxisten kontra hil ziren legazpiarra» omentzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte martxoan. Hil erdialdera liburu bat aurkeztuko dute, baina horrez gain, oroigarri plaka bat eta Ormakioko frontea egon zen lekura ibilaldia ere antolatu dituzte.

Lehen ekintza martxoaren 15erako programatu dute. Legaz-

pi 1936 liburuak aurkeztuko dute egun honetan. Inaki Yurubaso aritu da ikertzen, eta berak idatzi du liburua. 19:00etan egingo dute aurkezpena. Legazpi kultur etxean.

Martxoaren 18an bestetik, ez ohiko udabatzarria, omenaldia eta plaka jarzte ekitaldia burutuko dituzte, 12:00etan hasita. Egund berean, 19:00etan, Gerra Zibilari buruzko hitzaldia egingo dute kultur etxean, 19:00etan. Inaki Egaña ariko da hemen hizlari lanetan.

Azkenik, martxoaren 20an Ormakioko frontera ibilaldia egingo dute. 09:00etan abiatuko dira Brinkolatik eta hamaiketan Ormakioren salda eta txorixoa bantuko dituzte bertaratuen artean.

Irudia **Legazpi****JENDETZA BILDU DA 'LEGAZPI 1936' LIBURUAREN AURKEZPENEAN**

Herenegun gauetan Legazpi 1936 liburua aurkeztu zuten Legazpiko kultur etxean. Iñaki Iurrebaso soziologoak aurkeztu zuen gaia eta aretoa txiki gelditu zen bertaratu zen jendetza ikusita. Idazleak hainbat herritarren laguntza izan du liburu honen osaketan, tartean Jose Luis Ugarterena eta Aitor Ibañez de Garatxanarena. Guztiak ere aurkezpenean izan ziren. Iurrebasok ordubete baino gehiago eman zuen gaia aurkez-

ten, eta amaieran, lana egiterakoan jarri zituzten bi helburuak gogoratu zituen: «garai ilun haiei argi pixka bat ekartzea» eta «hildako 59 legazpiar horien, gerra aurreko herriko abertzaleen eta ezkerlarren, eta gudarien eta milizianoen izen ona eta chorea berreskuratzea». Liburua kultur etxean eta udaletxean jarri dute oraingoz salgai, eta apiril hasieran liburutendetara ere igorriko dute. **ALEX AREIZAGA**

Laburrak**Jaki manipulatzailerikastaroa eskainiko dute**

URRETXU Elkolab S Coop taldeak antolatuta, jaki manipulatzailerikastaroa egingo dute Urretxun. Urola Garaiaiko ostalariei eta merkatariei zuzenduta dago eta datorren martxoaren 28an egingo dute. 16:30etik 20:30era Urretxuko kultur etxean. Izena emateko interesa dutenek 943 53 33 03 telefonora hots egin beharko dute.

Udalekuetan izena emateko epea zabalik da

LEGAZPI Legazpiko Udaleko gazteria sailak 7 eta 13 urte bitartekoentzako udalekuen berri eman du. Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutakoak dira eta izena eman nahi dutenek martxoaren 23ra arte dute horretarako epea. Plaza guztiak apirilaren 5ean jendaurrean eta notarioarekin egingo den zozketan banatuko dira. Eskaerak Legazpiko Gazte Informazio Bulegoan edo saretik (gipuzkoagazteria.net/udalekuak) egin daitezke.

Jaietan dantza egiteko ikastaroa martxan dago

LEGAZPI Maiatzeko Santikutz jaietara begira, Sustraiak dantza taldeak Larrain eta Kapela dantzen ikastaroa abiarazi du. Zapaturu egiten dituzte entseguak, 17:00etan dantza taldearen egoitzan Herritar guztiei irekita daude.

'Zazpi orduak' obra landuko du irakurle taldeak 23an

Miren Agur Meabe liburuaren idazlea Urretxuko eta Zumarragako irakurleen tertulian izango da.

Alex Areizaga Urretxu

Urretxuko eta Zumarragako euskarazko irakurle taldeak ikasturte honetako seigarren bilkura ospatuko du datorren asteazkenean, hilak 23. Ohiko moduan, Urretxuko liburutegian egingo dute bilkura, 19:00etan.

Topaketa honetan Miren Agur Meabe idazlearen *Zazpi orduak* liburuaren aztertu dute eta oraingoan ere idazlea bertan izango da. Tertuliarako sarrera irekia da baina antolatzaileek liburuaren irakurrita joatea gomendatzen dute 15 lagun inguru bildu ohi dira hi-



Euskarazko irakurle taldea 23an bilduko da berriro Urretxun. **HITZA**

lerro eta Gorka Azkarate urretxuarrak gidatu ohi dituen saioak.

Sari ugardun idazlea

Miren Agur Meabe Lekeition jaio zen 1962an, nahiz eta egun Bilbon bizi den. Umetan idazlanekiko zuen afiziotik tiraka ipuinak eta olerkiak idazten hasi zen. Irakasle moduan egiten du lan eta Giltza

argitaletzeko zuzendaria ere bada.

Hainbat literatur sari ere jaso ditu Meabek, hala nola 1997ko Imajina ezazu Euskadi saria *Ohar orokorrak* poesia liburuagatik, 2001ean Kritika saria *Azalarren Kodea* olerki lanagatik eta 2002ko Euskadi saria *Itsaslabaurreko etxea* lanarengatik.

Korrika girotzen hasteko kantu jira eta bertso bazkaria antolatu dituzte

Kantu-jira apirilaren 8an egingo dute eta bazkaria aldiz, hurrengo egunean; Estiballes eta Zubeldia etorriko dira.

A. Areizaga Legazpi

Korrika girotzeko ekintzak prestatzen hasi dira jada Goierriin. Horren erakusle, Legazpin iragarri dituzten kantu-jira eta bertso bazkaria dira.

Kantu-jira Zingizango elkar teak eta Doinua musika eskolak prestatu dute, apirilaren 8rako. Jesus Castillejok zuzenduko du aurten taldea. Bertso bazkaria apirilaren 9an egingo dute gazte-txean. Arkaitz Estiballesek eta Iker Zubeldiak kantatuko dute.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

sarrerak

HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera ditu

Antzerki Garaia "100 m²"

Usurbe Antzokia
Martxoak 18 / 20:00etan eta 22:30etan

sarrerak eskuratzeko deitu:
943-16 00 56

harpidedun kodea eskura duzula
hasiako da gurekin iritsen zuzenean egongo duen.
Sartutikuen bidez Martxoaren 18ko egunera.

TRUKOAK hitza

Gaur arratsaldean 'Legazpi 1936' liburua aurkeztuko dute kultur etxean; 36ko gerrako eta gerra osteko legazpiar 'galtzailéen' bizipenak jasozen ditu

1936ko tiro hotsen oihartzuna

Alex Areizaga Legazpi

Legazpi 1936ko irailaren 19an okupatu zuten Francoren aldeko tropa nazionalak. Orduko, 2.400 biztanleko herri txikian 300dik gora bizilagun falta ziren garai beltz eta luze baten hasieraren iragarle gisa

Iñaki Iurrebaso soziologo legazpiarak liburua baten forma eman die kontakizun horiei. *Legazpi 1936* izenburupean aurkeztuko du gaua 19:00etan kultur etxean 36ko gerrarekin lotutako Legazpiko kontakizunen gertaren eta dokumentuen narrazio idatzia. Lan honetan beste hainbat herritarrek laguntza izan du Iurrebasok

Gerra aurreko Legazpi «herri txikia» zen. 2.400 biztanlekoa Oraindik ere gizarite tradizionalaren ezaugarri asko zituen «Base-riak pisu handia zuen, industria Patrizioren batez ere, haziz bazihoan ere», dio Iurrebasok. Fabriketako inmigrazioa hasia zen jada, Hego Euskal herritik gehienbat Herri Euskalduna eta oso aber tzalea» zen. 1933ko huteskundean 3 herritarretik 2k EA Iri eman zion botua. 36ko gerra uztailearen 18an lehertu zen

Francoren tropak aitxatu zirenean Euskal Herriari Mola jenerala gidatu zuen altxamendua Nafarroan Legazpira gerra hasi eta bi hilabetetara heldu zen. Denbora horretan errepublikarren esku egon zen herria «Erantzuna batekoak izan zen. sindikatuek eta ezkerreko alderdiek greba orokorra deitu zuten, eta Legazpin erantzun zabalak izan zuten» azaldu du Iurrebasok. Gerra piztu eta bi egunera «oinarizko defentsa bat» ere sortuta zuten herriari; inguruko mendietan lubakiak egiten hasiak ziren. Udalak herritarrei arma guztiak entregatzeko exijitu zien, ibilgailuak jaso zituen eta 35 urtetik beherako gizonen zerrenda bat osatu zuten. Nazionalen alde egin zezaketen bantzuk ere atxilotu zituzten

Frontea Legazpin

Altxamendua eman zenean. Nafarroa azkar erori zen nazionalen eskuetan. Gipuzkoara eraso jo eta Zegamara 6 egunetan iritsi ziren. Frontea hor mantendu zen zati batean Legazpirekin mugan «Bi hilabete horietan faxistak herritaren ateetan zeuden. Errefuxiatu mordo bat iristen hasi zen okupatutako herrietatik Bi aldeak Iruñ eta Donostia zituzten bu-



Liburuan argitaratuko duten gudari talde baten argazki bat LEGAZPI1936

ruan, eta gune estrategiko horien bila, bi hilabetez Legazpiko fronte geldirik egon zen, tiroketa eta atxiloteta bat edo besterekin». Defentsak zutik zirauen, baina errepublikarren baliabideak ezin ziren nazionalenekin alderatu

Gerraren ondorioz 59 lagun hil ziren Legazpin; herritik 300ek egin zuten alde

«Okupazioa ematean, herritarrik hari ituta gelditu ziren nazionalen uniforme eta armekin» dio soziologo legazpiarrak

Donostia eta Iruñ harituta, faxistak Bilborantz abiatu ziren «Erasoaldia batean iritsi zen Gipuzkoako fronte lerro osoan Legazpin irailaren 18an hasi ziren borroka, eta hurrengo egunean konkistatu zuten herri gunea 18an eman zen lehen hildakoa Legazpin Atagoiti inguruan»

Tiroketa gogorrenak inguru horretan izan ziren, 18 eta 19 goizaldean eta egun osoan zehar. Az-

tiri eta Ormakio bitarteko mendietan egon zen fronte lerroa. Herri gunea 10:00etan konkistatu zuten, Arrasatek behera erresistentziarik topatu ez zuten erreketek Etxe Alai inguruan tiroketa bat egon zen, nazionalak bertan milizianoak zeudela uste baitzuten, baina bizilagunek izara zuriak ateratzean faxistek tiro egiteari utzi zitoten.

Bi talde nazionalak jo zuten Legazpirantz Batetik, Gabiria, Aztria eta Arrasatek iritsi ziren; bigarren talde bat Seguriatik etorri zen. Aztiri igarota bitan banatu eta talde batek Brinkola-Telleriartera eta beste batek Ormakio aldera jotzeko, Brinkola eta Telleriartera har tzea gehiago kostatu omen zitzaizen faxistek, baina 18:00ak alderako bereganatu zuten auzoa. Nazionalak etortzerako, milizianoak Korosti, Udana eta Ur tatzaldera joanda zeuden.

Hortik aurrera milizianoek ekintzaren bat edo beste egin zuten Legazpin. Okupatu eta hurrengo egunean, milizianoz betetako kamioi bat herrirantz abiatu

zen. Oñati aldetik Erreketeak azaldu, ordea, eta ihesean joan behar izan zuten. Horieta hiru atxilotu eta fusilatuta egin zituzten, tartean legazpiar bat Patrizioren lantokia elikatzen zuen Bengoleako turbina elektrikoa erasabotea nahi izan zuten gudariak baina asmoak huts egin zuten

Legazpi haritu ondoren, gerrak beste 9 hilabetez jarraitu zuen Euskal Herriari, Bizkaia erori arte. Gerra amaizuta, hamar legazpiarretatik bat preso edo lan batailoietan zegoen, ihesean ez bazen. 300 bizilagun falta ziren

«Hura gertatu egin zen, eta ez da ahaztu behar. Eta ez hori bakarrik; kontakitu egin behar da, berriro gerta ez dadin» azaldu du Ramiro Pinillak Antologia Poetica Vascan *Galtzailéen* historia ahaztu egin nahi izan bada ere, liburua honek 1936ko tiro hotsen oihartzuna dakar Legazpira, historia ofizialari aurre egin zitoten pertsonen oroimena berreskuratuz eta 75 urte berandu bada ere, gordetako minei, hegoak zabalduz eta joaten utziz.

Iñaki Iurrebaso • Soziologoa

«Liburu honek ezkutuan eramandakoa den min hori arintzen lagun dezake»

A. Areizaga Legazpi

Iñaki Iurrebaso (Legazpi, 1967) soziologoa da. *Legazpi 1936* liburua iri forma eman die, legazpiar lan talde baten 3 urteko ikerketa lanak 300 orrialdeetara laburtuz.

Zerbaitekuste baino gehiago harritu aitzaitu?

Gerra Legazpin oso gogorra izan zela banekien, baina ez nuen hainbestera izatea espero. Pro-

por tizio horiek egungo biztanle kopurura ekarita ikeragarriak dira. Drama kolektibo izugarria izan zen. Gerra aurreko Legazpi dinamiko eta ameslari hori, belaunaldi ezker tiarrak eta abertzaleak, guztia bukatu zen. Lankideak hilda proiektu kideak hilda gorria zarelako luze ordaindu behar, lana aurkitzeko zailtasunak gosea garaigorrak eta oso zailak izan ziren

Nolatan hasi zinen lan hau egiten?

Udalak Euskal Memoria fundazioari eskatu zion lan hau egiteko, eta fundazioak niri proposatu zidan. Hala ere legazpiar talde bat 3 urte inguruz dokumentazioa bilatzen eta gerran hildako senideak dituzten herritarrekin elkarriketak egiten aritu da. Ni etortzerako informazio asko zegoen, eta gehienbat, antolatuta eta forma eman diot

Zaila al da 36ko gerra ikertzea?

Baditu zailtasunak. Urte asko pasa dira. Badira euren senitartekoa gerran hil zela ez zekitenak, baina baita mina oraindik ere oso baruan dutenak. Askok ezin izan zieten euren hildako senitartekoei semeari edota anaiari negarrik egin, eta jende askok min hori barruan du

Lan honek pisu hori arintzen lagun du al dezake?

Nik uste lagun dezakeela. Hori nahiko genuke. Ezkutuan eramanda, eta sufrimendu hori agerian jarri behar da. Gerra galdu zutenen ohorea eta izen ona ere argi utzi nahi ditugu. Ez ziren gaizkileak. Gaiari buruz pixkat gehiago hitz egiten ere lagun dezake agian.

Nolako esperientzia izan da lan hau egitea?

Oso gustur a aritu naiz, baina gogorra ere izan da. Gure aitona-amonak pasatakoak eta beldurra ere izugarria izan behar zen pasa behar izan zuten beldurra, une ikeragarriak bizi behar izan zituzten. Bestela, Legazpira hurbiltzeko aukera bat izan da niretzako. Taldean egin dugulan eta pozik aritu naiz, egia esan

Gerrako biktimak eta senideak omenduko dituzte 75. urtemugan

36ko gerran faxisten eskuetan hildako legazpiarak 59 dira; alde egindakoak 300 eta zigorituak 250

Alex Areizaga Legazpi

Legazpiko Udalak 36ko gerran hildako herritarak omenduko ditu. Legazpin 59 pertsona hil ziren faxisten aurkako edo hauek beharitutako borrokan Memoria hori berreskuratzeko asmoz, hainbat ekintza programatu dituzte. Datozen egunetan, liburu bat aurkeztuko dute eta Legazpin frontea egon zen lekua ikusteko ibilaldi bat ere antolatu dute.


Sotero Plazaola alkatea eta Mikel Altzelai kultur zinegotziak herenegun aurkeztu zuten egitaraua. Bertan azaldu zuten, aurtun 75 urte betetzen dira 36ko gerrak eztaba egin eta Francoren aldeko tropek Goierri hartu zutenetik Udala ordezkariei hitzetan, gertaera hark «sakon» aldatu

zuen» Legazpiren errealitatea. «Honekero gure artean gutxi izango dira urte haiek zuzenean bizi izan zituztenak, baina seguru gaude ez dutela gure herriaren etorkizuna su eta gar markatu zuten esperientzia ikaragarri hura ahaztu».

Datuak ere eman zituzten: 59 izan ziren hildako legazpiarak; 300 bizilagunek egin zuten herriatik alde; 250 espetxeratuak, lan batailoietara zigortuak edo erbeste-eratuak izan ziren «eta kontuan izan gerra hasi zenean Legazpik ez zituela 2.500 biztanle baino gehiago».

«Isilarazitako» memoria

Gertaera haiek gogoratzearen garrantzia ere azpimarratu zuten agerraldian «Faxisten erasoaren eta garaiaren ondoren, errepresio sistema frankistak isilarazi egin zuen gertatu zen guztia eta drama hura ezkatuta geratzea berinatu zuen. Urte askoan, gerra galdu zutenek, gaitzeaz gain ezin izan zituzten euren hildako seme-alabak anai-arrebak gurasoak,



Sotero Plazaola alkatea eta Mikel Altzelai kultura zinegotzia ekitaldien aurkezpenan. ALEX AREIZAGA

senitarfeokak eta lagunak gogoratu eta omendu» 75 urte bete diren honetan, udalak gertatu zeneren memoria berreskuratzeko lanak hasi ditu, eta «gerraren astakeria jasan zuten Legazpiko gizonen eta emakumeen omenaldi berro» eskaini nahi die. Hala, memoria historikoa berreskuratzeko lana hilabete honetako ekintzetara mugatu ordez, «datozen urteetan sei iotasunez zabaldu beharreko lan-ildoak» dela ere adierazi zuten.

Hala, udalak «legezkotasun demokratikoa adoretzeko defendatu zu-

ten Legazpiko semeen eta alabaren izen ona eta ohorea» aldarrikatu nahi ditu. «Harrotasunez eta esker onez gogoratzen dugu, iritzi aberiazale sakonek eta mundu justuaren aldeko ideiek bultzatuta faxismoa geldiarazteko ausardiak borrokatu zuten belaunaldi adoretzua, eskuzabala eta ameslaria».

Honekin batera, udal ordezkariek euren «maitasuna» azaldu zieten «urte luze hauetan euren oinazea isilean eraman behar izan duten biktima legazpiarrei eta haien senideei».

↓ Legazpi 1936

EKINTZEN EGITARAUA

- **Martxoak 15.** Legazpi 1936 liburuaren aurkezpena kultur etxean, 19:00etan
- **Martxoak 18.** Ez-ohiko udalbatzarra, omenaldia eta plaka jartzea. 12:00etan udaletxean. 19:00etan 'Gerra Zibila Euskal Herrian' hitzaldia kultur etxean.
- **Martxoak 20.** Ibilaldia Ormaiztegui frontera. 09:00etan, Brinkolako geltokian.

Bost jokalarik kanporaketarako sailkatuta daude Eire-Bankoan

Bi jardunaldi falta dira ligaxka amaitzeko; martxoaren 20tik aurrera kanporaketak hasiko dituzte

A. Areizaga Urrebu

Urretxuko Eire-Bankoa xake txapelketa zortzigarren jardunaldian da jada. Bi jardunaldiren faltan, sailkapenak definituz doaz final zortzirentara begira.

Egoitz Iurre zestoarra, Jesus Mari Rodi iguez zaldibarra, Jonkin Fernandez beasaindarra, Jon Regillaga elorriarra eta Carlos Erostarbe legazpiarra dira final zortzirentan egongo diren lehen bostak. Sailkapen buru dira, nor bere taldean. Gainontzekoek, bi partida dituzte oraindik txartelak lortzeko. Martxoaren 20rako bigazkako partida guztiak jokatu izan behar dituzte guztiak.

Eire-Bankoa txapelketan helduak eta gazteak batu ohi dira ur-



Jokin Fernandez eta Andoni Cotta. TXEMAIRIBERRI

tero xakearen bueltan. Aurten ordea, gazteak protagonismo berezia hartzen ari dira. Unai Elias 11 urteko gaztekoa da arreta gehien bereganatu duena, baina Eliasez gain, Eriki Rodriguez, Jokin Fernandez eta Andoni Cotta gazteak ere txapelketa ona egiten ari dira. Rodriguezek lehen urtea du Urretxuko txapelketan eta bigarrena lortu ditu dagoeneko.

Txapelketa hau inguratzeko, datorren asten hilaren 25ean, film emanaldi berezia egingo du Butak 21 Zine Klubak. *Los jugadores de ajedrez* filma proiektatuko dute. Satyajit Ray zuzendaria 1977. urtean Indian grabatutakoa. Emanaldia I. abeaga aretoan egingo dute eta sarrera doakoa izango da.

→ Laburrak

Herri programarako bigarren bilera gaur

LEGAZPI | Legazpiko ezker abertzaleak herri programa lantzeko bigarren bilera egingo du. Pasa den astean egin zuten aurrenekoa, eta bigarrena gaur egingo dute. 19:00etan kultur etxean. Euskara, kultura, kirolak eta gazteria puntuak landuko dituzte eta ezkertiar eta abertzale guztiei bertara joateko deia egin diete.

Zine klubak bi emanaldi egingo ditu asteburuan

LEGAZPI | Legazpi Zine Klubak bi emanaldi egingo ditu asteburu honetan. Lehen bihar izango da Ursula Antoniak zuzendari poloniarraren *Nothing Personal* filma proiektatuko dute, 22:15ean Latxartegi aretoan. Filma neska gazte holar baten eta gizon heldu irlandar baten arteko istorioa kontatzen du. Igandean, hilak 13, *Mis tardes con Margarita* filma proiektatuko dute Jean Becker zuzendariarena. 19:30ean hasiko dute emanaldi hori, Latxartegin.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GOIERRIKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 23a. VIII. urtea. 1754 zenbakia. goierri.hitza.info

Goierriko ia haur eskola guztietan bat egin dute hezitzaileen lanuztearekin

LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuek deituta, hamalau haur eskoletatik hamahirutan lanuzteak egin eta herrialde mailako mobilizazioetan parte hartu dute hezitzaileek


Deitzaileek «balorazio positiboa» egin dute eta orain, «administrazioari dagokio urratsak ematea»; egoera konpondu aitean, «borrokan» jarraituko dutela diote



Igandean herrehun bat lagunek parte hartu zuten Ormakioko frontea egon zen tokira egindako mendiri irteeran. © GOTZON ARANBURU

Goierriko udal gehieneko zorra hazi egin da azken urtean, %23 denera

Goierriko 22 udaletatik 19k zorpetuta bazi dute urtea; erakunde horien artean, 26,2 milioi euroko zorra dute, inbertsioetarako kreditu moduan



Ander Quina
Pilotaria

«Partidan sartzea da garrantzitsua, horretan etxeko berotasunak laguntzen du»

Gofiñen Omenezko XX Txapelketaren finala jokatu du gaur zumarragar gazteak, Mendinuetairen kontra

Elkarrizketa

Pausoz pauso memoria berrituz

Legazpin 36ko gerran hil ziren herritarak eta haien senideak omentzeko ekitaldiak bukatu dituzte, igandean Ormakiara, frontea egon zen tokira, egindako mendiri irteerarekin (irudian)

goierri.hitza.info

herrietako informazioa inoiz baino gertuago
ezagutu gure webgune berriak

beasain.hitza.info • ordizia.hitza.info • goierriekialdea.hitza.info • goierriemendealdeia.hitza.info
legazpi.hitza.info • www.otamotz.com



HYUNDAI

ZUBI TAILERRAK

Hyundai-en Goierriko
banatzaile ofiziala

Salvatore Auzon / BEASAIN / 949 88 93 05

36ko Gerra → 75. urtemuga (III)

Alex Areizaga | Legazpi

Adelaida Prieto (Legazpi, 1949) eta Jose Ramon Ibeas (Irun, 1934) 36ko Gerran hildako pertsonen senitar tekoak dira. Prietoren amonak 12 senide galdu zituen, eta Ibeasek berriz amona bera galdu zuen. Bien familiek, elkar ez ezagutu izanagatik ere, bide bertsua jarraitu zuten deserriari lehenago Frantzian eta gero Katalunian.

[Adelaida] Zure amonak 12 senitar teko galdu zituen 36ko gerran.

A Prieto: Josefa Zufiaurre zen nire amona Gerran galdu zuten zuzeneko senitar tekoak 12 dira. Bi anaia galdu zituen. Eloy eta Isidro. Eloy guduan hil zen, baina Isidro ez, nahiz eta historiak hori dioen. Loiolako koartelera joan zen, amai han zegoela esan ziotelako. Koartelean sartu egin nahi izan zuen, baina ez zioten utzi. Sarrean bertan metraillatu zuten. Amona, haurdun joan zen ihesi nire amarekin eta beste haur txiki batekin. Haurra gaixo hil zen, Frantzian. Espero zituen bikikiak ere galdu egin zituen. Obus baten leherketak nire ama harrapatuta utzi zuen. Emakume bat bere gainera bota zen, eta bizitza salbatu zion. Amonak, ordea, bere alaba hil egin zela uste zuen eta andrea gainean zuenez, ez zuten nire ama aurkitzen. Disgustuz, espero zituen haurrak bertan galdu zituena. Lurperatu egin zituzten, baina ez dakite non. Aitonaren anaia ere guduan hil zen.

Urte askoan zehar seme bat hilda zegoela uste izan zuen.

A.P.: 1944an agertu zen. Amonak konortea galdu zuen emozioagatik. Frantzian, Gurseko kontzentrazio eremuan egona zen. 1939an nazie atxilotu zuten eta 1944an irten zen, aliatuen etorrerarekin. Bi urtera hil egin zen. Bi iloba ere galdu zituen amonak frontean, eta senarra ere geraren ondorioz hil zitzaion, urteetara.

Patrizio Etxeberriak lagunduzion.

A.P.: Bai, preso hartu eta heriotz zigora ezarri zioten eta Patrizio [Etxeberriak] gestioak egin zituen aske utz zezaten. Lehenago gure aitona gauza bera egin zuen Patrizioekin. Errepublikarrak etorri zirenean, Patrizio ere kondenatu egin zuten, baina aitona, bera zegoen bitartean herrian ez zela inolako hilko esan zuen. Kontrako egoera iritsi zenean, Patrizio gauza bera egin zuen aitonaekin. Espetxetik gaizki ateratu zen ordea, eta urteetara hil zen. Gerra ondorenean ere egunero joan behar izan zuen Goardia Zibilaren koartelera. Behin, sukarrarekin esnatu zen, eta ama bidali zuten koartelera, aitak ezin zuela jaitsi esatera. Jaistera behar tu zuten, eta jipoiu egin zuten gainera, berandu jaitsi zelako.

Jose Ramon Ibeas Irungoa zara jaitzetan. Frantziako erbestealdia ezagu-



Adelaida Prieto eta Jose Ramon Ibeas

Adelaida Prieto eta Jose Ramon Ibeas 36ko Gerrako biktimen senitar tekoak dira. Prietoren amonak hamabi senitar teko galdu zituen; Ibeasek, berriz, amona bera galdu zuen.

«Hau dena ez dela ahaztuko ikustea oso polita da guretzat»

tu zenuen lehenik eta Kataluniako ondoren, Legazpira etorri aurretik.

J.R. Ibeas: Nik bi urte nituen eta amonarekin eta gurasoekin bizi nintzen Irunen. Frantziara ihes egin genuen. Inmunitate garan-



Gerraz piztu zenean etxetik asko irten ziren, eta amona eta nire ama soilik itzuli ziren»

«Irabazleek euren hildakoak sekulako pentsioekin goratu zituzten»

ADELAIDA PRIETO
36ko Gerrako biktimen senidea

tia moduko bat zen. Hilabete eta gutxira, baina, Bartzelonara eramantzen hasi eta asko. Graciako pasealekuan eman ziguten bizitokia. Burgesiaren utzitako pisuetan beste hainbat familiare-

kin batera. Denbora gutxira, ordea, portura eramantzen gintuzten. Gurasoek begi onez ikusi zuten hasieran, portuak aukera gehiago eskaintzen baitzituen. Hura, ordea, infernua zen. Gurasoak bonbardaketez oroitzen ziren. Portua itsasotik eta airetik bonbardatzen zuten. Borroka asko egin ondoren, amak handik ateratu gintzen lortu zuen. Periferiara bidali gintuzten, Verdun auzora.

Auzo hura lasalagoa al zen?

J.R. I.: Han lasaia gozatu genuen, baina zerbitzu handiak Bartzelonan egonik, zailtasunak genituen. Gosea ikaragarria zen. Amak, 80 kilo ingurukoak, 37 kilo pisatzen zituen. Bartzelonatik etorritakoan Ezzegeen jatekorik Kargamentu gutxi iristen ziren, itsasontziak torpedoz erasotzen baitzituzten. Reus ingurutik noizbehinka janari betetako kamioiak etortzen ziren, eta jende guztia arrapaladan joaten zen. Janaria bota egiten zuten kamioietatik. Haietako arrapalada batean, azaz betetako ka-

mioi baten inguruan, gure amona aza bat hartzen saiatu zen, eta lurrera bota zuten. Zapaldu egin zuten. Aldaka hautsi zioten. Horren ondorioz hil zen, Verdunen. 1939an itzuli ginen.



Frantzian Landetara eramantzen gintuzten, hondartzan zeuden kanpin dendetara»

«Nire gurasoek aurrezkiak zituzten, baina itzultzean kutzak ez zituzten aitortzen»

JOSE RAMON IBEAS
36ko Gerrako biktimen senidea

Frantziako erbestealdia ezagutu zuten, beraz, zuten familiek.

J.R. I.: Frantziako mugarekiko naturaltasunak jendeari igarotzen ez uzteko zailtasunak ematen zituen: itsasoz, menditik edo erre-

pidez igaro zitekeen. Gu Landetara hondartza batzuetara eramantzen gintuzten. Kanpin denda militarrek zeuden han. Hondartzetan komunak gisako kontuak inprobisatu egin behar izan genituen eta kontuan izan behar da adineko jende asko zegoela han. Nire gurasoek beti pentsatu izan zuten frantsesek jaso eta egoki tratatu gintuztela, baina ez gintuzten han nahi. Frantziara abuztu hasieran igaro ginen eta irailaren 30erako Bartzelonan geunden jada. Ahal bezain azkarren bidali gintuzten.

A.P.: Nik bi bertsioak ditut. Egia da Espainiatik joandako errefuxiatuak baztertu zituztela. Hala ere, nire amak jaso zituzten sendien oroitzen oso onak ditu. Baserrietan lagundu zitien. Erbestealdian sorpresarik ere izan zuen amonak.

A.P.: Santanderren, Frantzian eta Katalunian egon zen. Bizitzan kasualitateak ez daude, kausalitateak daude, eta hauetako batean, ihesi zebiltzala, mendian haur bat erditzen lagundu behar izan zuen. Katalunian geratu zen hori. Emakume bat erditzekotan zegoen, eta haurdunaldia zailtasunez bete zatorrela esan zioten eta ea laguntzera joan zitekeen, amona emagina baitzen, besteak beste. Hara joan, eta erditzekotan zegoena bere iraina zela ikusi zuten. Gerratik ihesi nor bere alde tik irten zen, eta Katalunian, mendian, elkar tu ziren.

Notakoa zen herri itzulerara?

A.P.: Lehen, maila soziala prestutako oheetan neurtzen zen. Amak zioen, joaterakoan, zapil ohe zituztela, arreo osoarekin. Itzultzerakoan ez zegoen ezer ere ez. Amona eta nire ama soilik itzuli ziren. Senarra espetxean zuten eta beste semea hilda zegoela uste zuten. Inguru guztian ere horrela zen. Legazpin bizi zenean amonaren ahizpa Nafarroara joan zen, senitar teko batzuegana. Espetxean sartu zuten, estraperloan gauzak ekartzen zituelako. Trena geltokia igarota motel joaten zen, makinistari ordainduta, noski. Brinkola inguruan janari zakuak botatzen hasten ziren. Amonak, ordea, lana aurkitzeko zailtasunak izan zituen. Hor ere, Patrizio Etxeberriak, aitona berekin egin zuena eskertuz, pentsio bat irekiko zuela esan zion. Galiziatik 55 pertsona etorri ziren. Zumarragatik fabrikarako tren bidea egitera. Amona pentsioaren kargu jarri zuen eta janari behintzat ez zen falta izan. Erbestealdiko itzulerako oso gogorra izan zen. Askor irten ziren etxetik eta eurak biak soilik itzuli ziren.

J.R. I.: Gerra amaitu zenean Legazpira etortzea pentsatu genuen, han ez baikenuen egitekorik. Aita beldur zen, ordea, Bartzelonan harrapatzen bazuten hango espetxean sartuko zutela.

GOIERRIKO hitza info

Osteguna, 2011ko uztailaren 21a - VII. denbora 18:23 zenbakia: goierri.hitza.info

Igor Anton, Purito Rodriguez eta Carlos Sastre Ordiziako Klasikan izango dira

Santiago Egunean, hilaren 25ean, jokatu da Ordizian egun bakarreko Euskal Herriko txirrindu proba zaharrena; Hamabi taldek parte hartuko dute 88. ekitaldian

Abaltzisketako gaina bost aldiz igoko beharko dute, eta azken bi itzulietan Altzo ere bai; Felix Bidaurreta 1942an proba irabazi zuen irundarra omenduko dute bukaeran

Zumarragako Aginaga auzoan 20 metro luzeko frontoia egingo dute azarorako

Berrehun mila euro inguruko aurrekontua du proiektuak; Mikel Serrano alkateak esan du auzotarren «aldarrikapen historikoa» dela pilotalekua



Azeari Andonegi
Lazkaoko Udaleko alkatea

«Mugak ditugu gure proiektuak garatzeko, proiektu handiak daudelako»

Elkarrizketa 5



Adelaida Prieto eta Jose Ramon Ibeas 36ko Gerrako biktimen senideak

«Itzulera oso gogorra izan zen»

Erbestealditik Legazpira itzuli ziren garaiak gogoan izan dituzte Prietok eta Ibeasek, eta azken urteetan memoria berreskuratzeko egin den lanak sorrarazi dien poza nabarmendu dute

Alegiako auzotarrek Madalena jaiak ospatuko dituzte

Dozena bat sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera izango da bihar, eta etzi, berriz, herri apustua egingo dute Alegiko seina mutilek eta bina neskek

sarrerak saridunak

“Ordizia sutan” Boxeo jaialdia
Ordiziako Beti Alai pilotalekuan
Uztailak 22 / 23:00

Ane Hernandez (Ordizia)
sarrerak leihatilan

hitzza

Uztailak 23
10:00-14:30
Lizeoko jolastokia

URRETXUKO NEKAZARITZA EKOLOGIKOAREN III. AZOKA

Biolur